

Nire altxorra

Egilea: Pagoa Bidart

Gaia: Laguntasuna

Doinua: Loreak udan ihintza bezala

1

Lagun arteko harremanetan

Gaude gutxienez biga

Bizi osoa irauten badu

Erraten ahal da biba

Irriz, negarrez, baita kexatuz

Elkarrekin ari gira

Konfiantza ta errespetua

Beharrezko gauzak dira

3

Bi neska hauek elkartu ziren

Lehen aldiz oso txiki

Batzutan ainitz elkartzen ziren

Bestetan ordea gutti

Mintzatzen eta txiste kondatzen

Pasatzen denbora aski

Ahal baduzu laguntasun hau

Bizi osoan atxiki

5

Enerbatua baldin bazara

Igor dezakezu bala

Nahigabeko mina emanaz

Jende guziak bezala

Zu zara lodi, handi, itsusi

Eta ni naiz hain argala

Noiztenka kexu izatea da

Harremanetan normala

2

Zorionetan oparitzen da

Txapela beltz, gona berde

Bestetan aldiz galdegiten da

Beti milaka mesede

Garbiketaren ardura baitzen

Atzo zure, egun nere

Bakoitzak hartu egin behar du

Eta baita eman ere

4

Lagun maitia deitu nazazu

Zu noizbait eri bazara

Etorriko naiz ta egingo dut

Barazkiekin nik salda

Behin edo bitan jan egin eta

Airatuko da sukarra

Une onetan eta txarretan

Elkar lagundu behar da

6

Bere itxurak bost axola dit

Burusoil edo bizardun

Baina nik lagun deitzeko bera

Izan behar dut ezagun

Onartuko dut bai baldin bada

Galtzaile edo txapeldun

Desberdintasun edo antzekin

Izaten ahal gira lagun

PINPIRIN